



Arartekoaren 2018S-2459-17 ebazpena, 2018ko apirilaren 27koa; horren bidez, Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari iradokitzen ari zaio pertsona bati diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko ebazpena berrikusteko.

Aurrekariak

1. Arartekoak herritar batek aurkeztutako kexa izapidetzeko onartu zuen. Horren bidez, interesdunak Arartekoaren esku-hartzea eskatu zuen, ez zetorrelako bat Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ukatzeko emandako ebazpenarekin.

Kexagileak azaldu zuenez, prestazio horiek aitortzeko eskaera egin zuen 2017ko apirilaren 4an. Uztailaren 14an, Lanbidek eskaera horri erantzun zion, eta aipatutako prestazioak ukatzea erabaki zuen, interesdunak higiezinaren bat zuelako jabetzan.

Horri dagokionez, adierazi behar da, prestazioak ukatu zituen ebazpenean higiezinak zeintzuk ziren zehazten ez zen arren, aurreko idazki batean –horren bidez, Lanbidek errekerimendu bat egiten zion horri entzunaldi-izapide baterako–, organismo honek jadanik aipatzen zituen Mena Haranean kokatutako 9 finka horiek.

Hala eta guztiz ere, kexaren sustatzaileak uneoro adierazi egin du aipatutako higiezin horiek bereak direla. Gainera, horrek aurkeztutako informazio-ohar sinplean egiazta daiteke Mena Haranean ez dagoela ezer erregistratuta bere izenean. Dirudienez, azaldu duenaren arabera, baliteke jabetzaren esleipena gaizki eginda egotea katastroan higiezinaren titular gisa agertzen zelako.

Horrez gain, adierazi behar da, 2017ko abuztuaren 28an, kexagileak zegokion berraztertze-errekurtsoa aurkeztu zuela Lanbidek ukatzeko emandako ebazpenaren aurka. Horretarako, erregistro-ohar bat aurkeztu zuen eta, bertan, irakur daiteke Mena Haranean bere izenean ***“no aparece nada inscrito”***. Errekurtso-fasean, Lanbidek ohar hori ezetsi zuen eta, dokumentu berri hori garaiz kanpokotzat jo ostean, kexagilearen asmoa ukatzea erabaki zuen, zehazki, arrazoi honengatik: ***“no ha aportado la documentación requerida (...) tendente a comprobar el cumplimiento de los requisitos y obligaciones exigidos”***, hain zuzen ere, diru-sarrerak bermatzeko errentaren maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak eskatutakoak.

2. Jarritako kexa hori behar bezala izapidetze aldera, eta gaiaren gainean zeuden xehetasunak argitzearren, Arartekoak informazio eskaera bat egin zion Lanbideri.
3. Lanbidek, bere aldetik, zuzendariaren nagusiaren idatzi batez honako informazioa jakinarazi zion erakunde honi:



"Interesdunaren 2017 /RGI/010755 espedientea aztertuta, egiaztatu da interesdunak 2017/04/4an aurkeztu zuela eskabidea, eta zegokion entzunaldiizapidearen ostean, ukatzeko ebazpena eman zitzaiolala, Lanbidek egiaztatu zuelako Katastroko informazioaren arabera eskatzaileak "9 higiezin dituela %100ean Valle de Mena udalerrian, eta haien katastro-balioa, guztira, 222.179,68 eurokoa dela". Erantsita, 2017/07 /12an jakinarazitako entzunaldi-izapidea bidali dizut.

Eskatzaileak epe barruan erantzun zion entzunaldi-izapideari (erregistro-sarrera 236309/2017, 2017/07 / 14koa), bere izenean adieraziz ez dauzkala jabetza horiek eta hala dagoela jasota Jabetza Erregistroan, baina ez zuen horrekin lotutako agiririk aurkeztu. Alegazioak ezetsi egin ziren eta eskaerari ukatzeko ebazpena eman zitzaion, "Ondasun higiezinen bat izategatik jabetzan".

Ukatzeko ebazpena (erantsita doa) 2017/07 /28an jakinarazi zitzaion eskatzaileari, eta hark berraztertze-errekurtsoa (2017/ 281599, 2017 /08/28koa) -erantsita doa-aurkeztu zuen Lanbiden epe barruan, eta Jabetza Erregistroko idazkia aurkeztu zuen.

Lanbidek errekurtsoa ezetsi zuen (ebazpena erantsita doa), eta 2017/11/15ean jakinarazi zitzaion eskatzaileari.

Kexari buruzko zure idazkian bidalitako kontsulta zehatzei dagokienez, adierazpen hauek egiten ditugu :

- a) Lanbidek eskatzailearen jabetzat hartzen dituen ondasun higiezinak Katastroan jasota daudenak dira, eta, eskaera izapidetzean egindako kontsultaren arabera, hauek dira:*

<i>HIRI-/LANDA-ONDASUN EZ PROF.</i>	<i>215.108,39 €</i>	<i>Valle de Menan, Burgosen, kokatua</i>
<i>HIRI-/LANDA-ONDASUN EZ PROF.</i>	<i>1.245,45 €</i>	<i>Valle de Menan, Burgosen, kokatua</i>
<i>HIRI-/LANDA-ONDASUN EZ PROF.</i>	<i>85,56 €</i>	<i>Valle de Menan, Burgosen, kokatua</i>
<i>HIRI-/LANDA-ONDASUN EZ PROF.</i>	<i>686,62 €</i>	<i>Valle de Menan, Burgosen, kokatua</i>
<i>HIRI-/LANDA-ONDASUN EZ PROF.</i>	<i>1.228,12 €</i>	<i>Valle de Menan, Burgosen, kokatua</i>
<i>HIRI-/LANDA-ONDASUN EZ PROF.</i>	<i>1.132,83 €</i>	<i>Valle de Menan, Burgosen, kokatua</i>
<i>HIRI-/LANDA-ONDASUN EZ PROF.</i>	<i>1.315,85 €</i>	<i>Valle de Menan, Burgosen, kokatua</i>
<i>HIRI-/LANDA-ONDASUN EZ PROF.</i>	<i>1.134,99 €</i>	<i>Valle de Menan, Burgosen, kokatua</i>
<i>HIRI-/LANDA-ONDASUN EZ PROF.</i>	<i>241,88 €</i>	<i>Valle de Menan, Burgosen, kokatua</i>

- b) 2017/REC/003827 berraztertze-errekurtsoa 2017/11/7an ebatzi zen, eta haren ezestea 2017/11/15ean jakinarazi zitzaion interesdunari.*

- c) Interesekoa balitz, interesdunak DSBE-EPO jasotzeko beste eskabide bat aurkeztu du, erregistro-sarreraren 2017/10/2ko data duena, eta oraingoz ebatzi gabe dago".*

Gogoetekin jarraitu aurretik, aipatu behar da interesdunaren diru-sarrera bakarrak direla kotizazio gabeko pentsioaren kontzeptuan jasotzen dituenak, hain zuzen



ere, hilean 400 euro inguru kobratzen ditu. Hortaz, horrek ahultasun handiko egoera batean kokatzen du interesduna.

Gogoetak

1. Hipoteka Legearen 38. artikuluan ezartzen da legitimazio printzipioa edo erregistro-zehaztasunaren printzipioa; izan ere, horrek hauxe zehazten du: *"Lege-ondore guztietarako uste izango da Erregistroan inskribatutako eskubide errealak izan badirela, eta euren titularrei dagozkiela, Erregistroko idazkunek adierazten dutenaren arabera. Molde berean, ondasun higiezinaren gaineko jabaria edota eskubide errealak inskribatu dituenak horien edukitzea ere badutela uste izango da"*.

Zehazki, Hipoteka Legearen 38. artikulua erregistro-egiatasunaren presuntzioa ezartzen du, aurkakoa frogatu ezean. Beste era batera esanda, suposatzen da Jabetzaren Erregistroan inskribatutakoa bat datorrela errealitatearekin, horren zehaztasunik eza adierazten ez den arte. Hortaz, horrez gain, esan genezake printzipio horrek ondorio nagusi bat duela prozesuaren ikuspuntutik: aurkako frogaren zama esleitzen dio erregistro-errealitatea aurkatzeko duenari.

Hala eta guztiz ere, orain aztertzen ari garen kasuan, ez du ematen Lanbidek frogatzeko jarduerarik burutu duenik, hain zuzen ere, erregistro-egiatasunaren presuntzio hori suntsitze aldera. Are gehiago, esan genezake bere erabakia katastroko zenbait daturen egitasun-presuntzioan oinarritu duela. Eta kontua da, erregistroaren eta katastroaren arteko desadostasuna dagoen kasuetan, Higiezinaren Katastroaren Legeak berak ezartzen duela Jabetzaren Erregistroan jasotako adierazpen juridikoak gailentzen direla. Horrela, Higiezinaren Katastroaren Legearen testu bategina onartu zuen martxoaren 5eko 1/2004 Legegintzako Errege Dekretuaren 3. artikulua hiru paragrafoak, hain zuzen ere, Ekonomia Jasangariaren martxoaren 4ko 2/2011 Legeak emandako idazketan, hauxe xedatzen du: *"[s]alvo prueba en contrario y sin perjuicio del Registro de la Propiedad, cuyos pronunciamientos jurídicos prevalecerán, los datos contenidos en el catastro Inmobiliario se presumen ciertos"*¹.

Orain arte esandako guztiari gehitu behar zaio, higiezin baten jabetza-eskubidearen katastro-titulartasunak ezin duela aipatutako eskubide errealaren existentzia-presuntzioko ondorio zibilik eduki. Izan ere, Espainiako Kode Zibilaren arabera, presuntzio hori soilik ondorioztatzen da erregistroko inskripziotik.²

2. Edonola ere, Lanbideko zuzendari nagusiak igorritako txostenean xedatutakoarekin bat eginez, interesdunak, alegazioen fasean jadanik, adierazi zuen bera ez zela Lanbidek aipatutako higiezin horien jabea.

¹ Arartekoaren enfasia.

² Ikusi Kode Zibileko 605. artikulua eta hurrengoak.



Inguruabar horren aurrean, Lanbidek frogaldi bat ireki lezake eta, izan ere, ireki beharko luke, benetan horren baieztapenak faltsuak ote ziren egiaztatze aldera. Are gehiago kontuan hartzen badugu erabakiaren oinarritzat hartutako informazioa Katastrofik eskuratu zuela, hau da, administrazio-erregistro batetik eta erregistro horrek ez du inola ere ematen ondasun higiezinaren jabariaren titulartasunaren federik.

Horixe bera ondoriozta daiteke Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen (aurrerantzean, 39/2015 Legea) 77.2. artikulutik. Izan ere, artikulua horrek xedatzen du instruktoreak frogak aurkezteko epea ireki behar duela, ezinbestean, baldin eta administrazioak ez baditu egiazkotzat jotzen interesdunek alegatutako egitateak. Auzitegi Gorenak ere antzeko zerbait adierazi zuen, besteak beste, 1981ko urriaren 14ko epaian. Horrez gain, epai horretan hauxe jaso zen: *“como la Administración no practicó prueba capaz de demostrar la inexactitud de los hechos alegados por la entidad sancionada, debió resolver soportando los efectos desfavorables de su inactividad probatoria (...)”*.

3. Beste espediente batzuetan gertatu den bezala, Lanbidek honetan ere ez du errekurso-idazkiarekin batera erantsitako dokumentazioa onetsiko, zehazki, arrazoi honengatik: *“no es éste el momento procedimental para ello”*.

Lanbideren jarrera horrek Herri-administrazioen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 118.1. artikulua bigarren paragrafoan dauka araudi-oinarria (aurrerantzean 39/2015 Legea); horren arabera, *“[e]rrekursoak ebaztean, ez da kontuan hartuko errekurso-jartzaileak alegazioen izapidean aurkeztu ez duen egitate, dokumentu eta alegaziorik, alegazioen izapidean aurkezteko aukera izan bazuen. Ezin eskatuko da frogak egiteko, orobat, ebazpen errekurritua eman zen prozeduran ez egin izana interesdunari inputa dakiokenean”*³.

Era berean, adierazi behar da administrazioak errezeloa daukala “elementu berriak” gehitzeari dagokionez, administrazio-jurisdikzioa soilik berrikusteko balio duen jurisdikziotzat hartzen zelako lehen. Izan ere, asko eztabaidatu da horren inguruan eta, gaur egun, esan daiteke ideia hori neurri batean deuseztatu egin dela.

Hain zuzen ere, Auzitegi Gorenaren Hirugarren Salak 2010eko martxoaren 17ko epaian aitortu zuen mota guztietako elementuak, egitateak edo dokumentuak gehitzeko zilegitasuna, baldin eta horrekin interes orokorrak hobeto bermatzen dituen erabaki bat hartzea ahalbidetzen den:

³ Jatorrizko espedienteetan jasota ez dauden dokumentu berriak onartzeko muga hori indargabetutako Herri-administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 112.1. artikuluan ere islatuta zegoen.

“Sexto.- El análisis de la pretensión impugnatoria debe comenzar precisamente por esta última parte de la resolución que acabamos de transcribir. En ella se sostiene una tesis errónea sobre la función de los recursos administrativos, a resultas de la cual no cabría introducir en éstos "elementos nuevos" sobre los que no hubiera podido pronunciarse el órgano que dictó la resolución impugnada.

Es errónea la tesis, decimos, y parte de una concepción no aceptable del "carácter revisor" de los recursos administrativos que difiere de la que preside los artículos 107 a 119 de la Ley 30/1992 (RCL 1992, 2512 , 2775 y RCL 1993, 246) , de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común . En contra de lo afirmado por la resolución que examinamos, es lícito introducir en los recursos de alzada o de reposición hechos, elementos o documentos nuevos, no recogidos en el expediente originario. La posibilidad está expresamente prevista en el artículo 112.1 de la Ley 30/1992 (e implícita asimismo en el apartado tercero del artículo 113) y es coherente, por lo demás, con la función propia de estos mecanismos de revisión de la actividad administrativa.

Los recursos administrativos, además de garantía para los administrados, son también un instrumento de control interno de la actividad de la Administración en la que un órgano superior -o el mismo, en reposición- revisa en toda su extensión lo hecho por otro, sin estar necesariamente vinculado al análisis de los meros elementos de hecho o derecho que este último hubiera tenido o podido tener en cuenta. Lo que se pretende con los recursos es posibilitar una mejor decisión que sirva con objetividad los intereses generales, y ello será tanto más factible cuantos más elementos de juicio se pongan a disposición de quien ha de decidir finalmente sobre la impugnación.

El órgano que resuelve el recurso no está constreñido por los solos datos presentes en la resolución originaria. Tras el acuerdo inicial pueden alegarse en vía de recurso administrativo hechos, elementos o documentos de todo tipo, también los de fecha posterior a aquél, si de ellos se deducen consecuencias jurídicas relevantes para la mejor resolución del expediente. El recurso administrativo, salvados los límites de la congruencia y la imposibilidad de gravar la situación inicial del recurrente (artículo 113 in fine de la Ley 30/1992), permite una reconsideración plena, sin restricciones, del asunto sujeto a revisión. Reconsideración en la que, insistimos, pueden alegar los impugnantes cualesquiera hechos o elementos de juicio, también los que no se pudieron tener en cuenta originariamente pero sean relevantes para la decisión final”.

Hortaz, Auzitegi Gorenak ondorioztatu egin du “*elementu berriak*” gehitzeko aukerak Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen legean daukala araudi-babesa. Zehazki, jotzen du “*beren-beregi aurreikusita*” dagoela 39/2015

Legearen 118.1. artikulua⁴ (aurreko 30/92 Legearen 112.1. artikulua)⁵ eta *"inplizituki"* lege beraren 119.3. artikuluan (aurreko 30/92 Legearen 112.1. artikulua). Beraz, adostasun-printzipioa bermatuta eta kexagilearen egoera okertzea ezinezkoa denez, errekurtsua ezagutzen duen organoak espedientean zehar sortzen diren kontu guztiak ebatzi beharko ditu, interesdunak horiek alegatu dituen edo ez gorabehera.

Illo beretik, Auzitegi Gorenaren 2017ko apirilaren 20ko epaia ere aipatu beharra dago (kasazio-zenbakia: 615/2016); bertan, Auzitegi Gorenak, 2010eko otsailaren 11ko (kasazioa: 9779/2004), 2012ko ekainaren 20ko (kasazioa: 3421/2010), 2015eko ekainaren 24ko (kasazioa: 1936/2013) eta 2017ko apirilaren 20ko (kasazio-zenbakia: 615/2016) ebazpenetan ezarritako doktrinan oinarrituta, laugarren oinarri juridikoan modu kategorikoan ondorioztatzen duela honako hau: *"[p]or lo tanto asistía, la razón a la parte recurrente en este caso para que la documentación acompañada con su escrito de interposición al recurso de reposición fuese valorada y tenida en cuenta a la hora de resolverse en vía administrativa, sin que su aportación en dicho momento fuese obstáculo insalvable para hacerlo. (...) si en vía económico-administrativa y en vía judicial es posible aportar la documentación que el actor estime procedente para impugnar una resolución tributaria, parece mucho más lógico que pueda hacerse antes en el discurrir procedimental y aportarse en el primero de los medios de impugnación que pueden ejercitarse"*⁶.

Horrez gain, ematen du komeni dela adieraztea jurisprudentzia-doktrina honen araudi-oinarria dagoela Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa Arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 56.3. artikuluan. Zehazki, horrek interesdunari ahalbidetzen dio, demandarekin batera, eskuragarri daukan dokumentazio guztia aurkeztea bere eskubidea egiaztatze aldera. Izan ere, araudi-xedapen horretatik abiatuta, Auzitegi Gorenak haxe xedatu du: *"(...) si esto es así en vía jurisdiccional, con más razón debe ser así cuando la documentación se aporta en sede de recurso de reposición"*⁷.

⁴ 118.1 artikulua haxe xedatzen du lehenengo paragrafoan: "Jatorrizko espedientean jaso ez diren beste egitate edo agiri batzuk hartu behar badira kontuan, haien berri emango zaie interesdunari, gutxienez hamar egun eta gehienez hamabost iraungo duen epe batean alegazioak egin eta egoki deritzoten agiri eta egiaztagiria aurkez ditzaten".

⁵ Hala, 119.3 artikulua haxe xedatzen du: "[e] Errekurtsua ebazten duen organoak prozedurako arazo guztiak argituko ditu, bai formazkoak bai edukizkoak, interesdunak alegatuak izan edo ez. Interesdunak alegatu ez dituzten arazoen gainean ebatzi baino lehen, entzun egingo zaie interesdunari. Nolanahi ere, errekurtsu-jartzaileak eskatutakoaren harikoa izango da ebazpena, eta ezin izango du inoiz okerragotu haren hasierako egoera".

⁶ Arartekoaren enfasia.

⁷ Horretarako, ikusi Auzitegi Gorenaren 2015eko ekainaren 24ko epaia (kasazio-errekurtsua 1936/2013).



Aurretik esandako guztiagatik, Arartekoak uste du ez dela okerra adieraztea, administrazioak dokumentazio zehatzaren berri badu, hau da, araudian aurreikusitako betekizunak betetzen direla modu frogagarrian egiaztatzen duen dokumentazioaren berri badu hori kontuan hartu beharko litzatekeela. Hala, errekurso-fasean hori aurkezteak ez luke eragin beharko dokumentazioa ez onartzea, garaiz kanpoko delat argudiatuz. Hori horrela da, besteak beste, ezin delako bestela ulertu zaintza judizial eraginkorra izateko eskubidea, Espainiako Konstituzioaren 24.2. artikuluan xedatutakoa. Izan ere, artikulua horren edukitik ondorioztatzen da interesdunaren interesak eta uziak defendatzeko behar diren frogabideak erabiltzeko eskubidea. Beraz, aurreko lefroetan adierazi egin den bezala, egoitza judizialean frogabide berriak erabili ahal badira, are zentzudunagoa da berraztertzeke administrazio-egoitzan aurkeztu ahal izatea.

Azken batean, Auzitegi Gorenak 2010eko martxoaren 17ko epaiaren zortzigarren oinarri juridikoan ondorioztatu zuen bezala, egia esan: *"[n]o puede aceptarse la validez final de un acto administrativo que se basa sobre un presupuesto de hecho demostradamente erróneo"*. Orain aztertzen ari garen kontuan, Lanbideko zuzendari nagusiaren ebazpena, hau da, interesdunari diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria jasotzeko eskubidea ukatzea erabakitzen duen ebazpenak egitatezko oinarri bat du eta horren izaera okerra modu fidagarrian egiaztatu egin da. Hortaz, aurrekoa kontuan hartuta, uste dugu nahitaez egin beharko litzatekeela horren berrikuspena.

Hirugarren gogoeta horretan azaldutakoari gehitu beharko litzaioke honakoa: printzipio antiformalistak gidatu behar du administrazioaren jarduketa oro eta horrek eskatzen du forma interes orokorren defentsaren eta bermearren menpe egotea.

4. Komenigarria da labur aipatzea administrazio eta gobernu onerako eskubidea, hain zuzen ere, horrek ezartzen baitu botere publikoek demokrazia aurreratuko sistemetan nola arautu behar duten bere jarduketa.

Horri dagokionez, jurisprudentziak adierazi egin du eskubide horrek erakunde eskudunari eskatzen diola, besteak beste, aztertzen den kontuaren elementu nabarmen guztiak aztertzeke, modu zehatz eta inpartzialean⁸. Beraz, Arartekoaren ustez, jarduteko modu horrek jarduketaren xede den pertsonaren baldintza pertsonalak kontuan hartu beharko lituzke. Besteak beste: sexua, adina, gizarte-jatorria, prestakuntza kulturala eta bere interes partikular eta, aldi berean, zilegi guztiak ere bai.

⁸ Ikusi, beste batzuen artean, EBJAren honako epai hauek: 2009ko urriaren 15eko epaia, Enviro Tech (Europe), C-425/08, 47. eta 62. atalak; 2002ko irailaren 11ko epaia, Pfizer Animal Health/Consejo, T-13/99, 166. eta 171. atalak eta 2013ko irailaren 16koa ATC y otros/Comisión, T-333/10, 84. atala.



5. Ondorio gisa, kexagileak Jabetzaren Erregistroaren ziurtagiriaren bidez egiaztatu egin du ez dela esleitzen zaizkion finka horien jabea. Hortaz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren titular izateko betekizunak betetzen dituela esan genezake.

Bestalde, zegokion dokumentazio frogagarria aurkeztu zuen berraztertze-errekurtsoaren fasean eta hori ezetsi egin zen garaiz kanpokotzat jo zelako. Hori guztia horrela da hirugarren gogoetan adierazitako jurisprudentzia-doktrina gorabehera, errekurtso-fasean dokumentu berriak aurkeztea ahalbidetzen duena. Horrela, soilik ikuskapen-eginkizuna zuen administrazio-jurisdikzioaren doktrina klasikotik jurisdikzio bermatzaile batera eboluzionatzen da eta azkenengo horrek lotura estuagoa dauka Konstituzioaren 24. eta 103. artikuluekin eta demokrazia aurreratuen berezko gobernu onerako eskubidearekin.

Hemen adierazitakoa dela-eta, behintzat kasu honetan, errekurtso-bidean, dokumentu berrien aurkezpena ez litzateke horiek ez onartzeko kausatzat hartu beharko; izan ere, horietatik ondorioztatzen da kexagileak diru-sarrerak bermatzeko errenta jasotzeko eskubidea duela eta, horrez gain, funtsezkoak dira azken ebazpenean interes orokorrak hobeto defendatu eta bermatzeko.

Azkenik, berriz ere adierazi nahi dut kexaren sustatzailea ahultasuneko egoera berezi batean dagoela; izan ere, 72 urte dauzka eta ez ditu premiarik oinarritzkoenak asetzeko beharrezkoak diren baliabideak eta hori da, hain zuzen ere, Diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legeak arindu nahi duen egoera.

Azaldutako guztiagatik, eta otsailaren 27ko 3/1985 Legeak –erakunde hau sortu eta arautzekoak– 11.b) 9. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, Arartekoak Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari honako iradokizun hau egin nahi dio:

IRADOKIZUNA

Arartekoak Lanbideak diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak ukatzeko emandako ebazpena berrikusteko iradokitzen du, uste duelako, aurretik adierazitako gogoetetan oinarrituz, prestazioen eskatzaileak araudi aplikagarriak horien titular izateko eskatzen dituen betekizunak betetzen dituela.

